



## HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2017/01/18

BILERA ZENBAKIA:1

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: Tere, Maddi, Amaia, Marijo, Iker, Maite, Joxeluis, Iñigo, Rosi

### EGINDAKO LANAREN LABURPENA

#### LANDUTAKO GAI ORDENA

##### 1. KULTUR EKINTZEN BALORAZIOA ETA AURRERA BEGIRAKO EKINTZAK.

- Urtarrilaren 26an Korrika Batzordea sortuko dela Itsasondon, lehen bilera arratsaldeko 7etan izango duelarik.
- Kultura batzordea eta Ongizatekoak martxoaren 8dataran inguruan genero ikuspegia landuko duen antzezlan bat antolatzekotan geratu dira. Martxoak 11an, arratsaldeko 7etan, "bi ero diskotekan" proposatzen da baina lotu gabe
- Otsailaren 22an, Bizi nahi elkartean muffins tailerra egingo da 17:30etan.

##### 2. URTEKO HERRI BIZITZAKO PLANGINTZA

- Herri bizitzan 2017. Urtean landuko diren gaiak aztertzeko Itsasondo Ekinez egin ahal izateko parte hartze prozesuan herritarrek aukeratu zituzten lan ildoak azertu eta lan taldearen esku dauden landu gabeko edo berriz landu beharreko gaiak aukeratu dira. Lanketa hauek eraginkorrak izateko, hilabete horretan tokatzen den gaia landu behar duenak aurretiaz prestatzea eta beste taldekideei iritxi araztea garrantzitsua ikusten da. Maite eta Maddi saiatuko dira jarraipena egiten, materiala denboraz jaso dadi. Honako egutegia prestatu da.
  - URTARRILA: Urteko plangintza itxi eta ardurak banatu.
  - OTSAILA: Euskera taldea. Urtera begirako proiektu ezberdinak. Arduraduna Marijo.
  - MARTXOA: Urteko kirol plangintza. Arduradunak Maddi/Maite
  - APIRILA: Elkarteen egunaren antolaketa. Arduraduna talde guztietako kideak ideien bat ekartzea.
  - MAIATZA: herriko jaiak. Nola hartu abuztuko jaien inguruko erabakia. Arduradunak Maddi/Kultura Batzordea.
  - EKAINA: Elkarteen eguna.
  - UZTAILA: Festa batzordea lanean izango denez, gai berririk ez badago, LIBRE.
  - ABUZTUA: Libre



- IRAILA: Festa batzordea. Arduraduna, Kultura Batzordea.
- URRIA: Aurrekontuak. Arduraduna: Maddi/Emma.
- AZAROA: Hezkuntza. Matrikulazio kanpaina. Arduraduna Aitor.
- ABENDUA: LIBRE

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
EUSKERA BATZORDEA , LAN TALDEA PRESTATU	OTSAILAK 10	marijo
<b>HURRENGO BILERA</b>		
Hurrengo bilera Otsailaren 15ean, arratsaldeko 7etan.		